

{ datorrena } **Isidro ESNAOLA**

Tabako bila joan eta ia kibbutz batean amaitu

Palestinako gatazka ez zait askorik interesatu, baina, hain zuzen ere, Hegoafrikan nahiko elkarrizketa argigarria izan nuen gaiari buruz. Tabako beltza saltzen zuen lekuren baten bila nenbilen, eta tabako kubatarra zeukan estanko bat aurkitu nuen. Judu zahar batek zuzentzen zuen, eta harekin elkarrizketa bitxi bat izan nuen. Sartu nintzenean, horrela galdetu zidan:

–Nongoa zara? Italiarra? Portugesa?...

–Ez, euskalduna. –esan nion, eta Euskal Herria non dagoen azaldu nion. Hark, izpiritu praktikoa erakutsiz, esan zidan:

–Espainola, orduan. –Eta erantsi zuen: –Ziur arbaso juduren bat duzula.

–Ez dut uste. 500 urte dira juduak penintsulatik bota zituztela, judu sefardiak, badakizu...

Baina gizonak, etsipenez aserik, jarraitu egin zuen:

–Bai, baina, hala ere, asko geratu egin ziren. Zer abizen dituzu?

–Lehenengoa euskalduna da, eta bigarrenak, Herre-rok, errementaria esan nahi du.

–Ikusi duzu nola nuen arrazoia. Ofiziozko izena oso ohikoa da abizen juduetan. Juduen ondorengoa izango zara, ia ziur.

–Ongi da, zuk diozuna.

Joder, temati gizona, pentsatu nuen. Berdin-berdin tabakoa erosiko diot. Ez nuen ulertzen interes bizi hori. Gaiari bueltaka, gogora etorri zitzaidan judu-jatorriko ikaskide batek azaldu zidala judua izateko nazientzat nahikoa zela judu-arbasoren bat edukitzea, baina ortodoxoentzat ez zutela nahasketek balio, %100ean izan behar zela. Hara, bitxia benetan, juduek nazien irizpidea hartu izana. Baina, gainera, zergatik erlaxazio hori? Eta erantzuna oso erraza da, eta egun hauetan Palestinan ikusten ari gara: kolonoak era-

man behar dituztelako Israelera; palestinarrak guztiak beren lurretatik kanporatzeko adinako presioa sortu behar dutelako; eta joan nahi ez badute, suntsitu egingo dituztelako. Horretarako, gero eta zuri gehiago eraman behar dituzte lurralde palestinarra kolonizatzen jarraitzeko; juduak izan ala ez, ez zaie axola.

Horretan ez dago ezer berririk: Europako nazio batzuek jatorrizko herriak txikitu eta kanporatu zituzten beren aberastasunez jabetzeko eta estatu berriak sortzeko: AEB, Kanada, Australia, Zeelanda Berria, Hego Amerika... Beste leku batzuetan, hala nola Afrikan edo Indian, kolonialismoak ez zuen lortu bertako populazioa suntsitzerik, nahiz eta ez zen izan saiatu ez zirelako, egunotan Namibiak Alemaniari gogorarazi dion bezala. Sionismoak europar kultura koloniza-

Sionismoak europar kultura kolonizatzaile eta arrazistan ditu sustraiak, europar tradizio horren parte da. Hortik dator genozidioarekiko europar eliteen axolagabetasuna

tzaile eta arrazistan ditu sustraiak, europar tradizio horren parte da. Hortik dator sionismoa Palestinan egiten ari den genozidioarekiko europar eliteen axolagabetasuna, ulermena ez esatearren.

Gehien harritzen nauena da bi estaturen konponbidearen aldeko apustua egiten jarraitzea, sionistek, kolonizatzaile on gisa, dena nahi dutenean. Netanyahuk behin eta berriz errepikatu du hori. Bestalde, espolioazio baten gainean eraikitako Estatuak ez du bideragarritasun handirik. Injustizia beti da indarkeriaren ernamuina. Gainera, estatua arrazista bada, ez ditu giza eskubide oinarritzkoenak errespetatuko, ez da demokratikoa izango, beti izango da gatazkaren iturria. •